

1 FORMULA-KO PILOTUAK

"Gipuzkoako metalgintzako langileak pribilegiatu batzuk zarete; 1 Formula-ko pilotuak bezalakoak zarete, negoziazio kolektiboan beti lehenak irtetzen zaretelako."

Esaldi xeblebre hau Juan Ramón Apezetxeak esan zuen, ADEGI-ko ordezkaria Metaleko Hitzarmeneko negoziazio mahaian, joan zen maiatzak 25ean izandako bileran. Metafora txar honekin, Apezetxea jaunak sindikatu guztioi aurpegiatu nahi zigun aurreko Hitzarmenetako eduki zein eskubideen errespetua negoziatzeko baldintza bezala kontsideratzea (sindikatu guztiok oinarri minimo hau oso argi baitauek), negoziazioan *abantaila* ematen digula. Gainera, Gipuzkoako metalgintzako langileok pribilegiatu batzuk ei gara -bere hitzetan- Estatuko metalgintzako gainerako langileak baino gehiago kobratzen dugulako. (Hori bai, Gipuzkoan produktu guztien salneurriak ere Estatuko beste edozein tokitan baino dexente altuagoak direla esatea *ahaztu* zitzaion).

Jakina, tankera hauetako adierazpenek egun ADEGI-ko zuzendaritza ardurak beraganatu dituzten pertsonen adimen intelektualaren neurria ematen digute. Marrazo zikoitzak baitira, ezbairik gabe. ADEGI-ko zuzendaritzakoek harrokeria soberan daukatela egunero frogatzen digute; aldiz, negoziatzeko borondatea edo eta errespetua bezalako ezaugarriak buruz ezer gutxi dakitela ere minuturo frogatzen digute.

Maiatzak 28ko greban Gipuzkoako metalgintzako langileok emandako duintasun erakustaldia dela-eta, espero dezagun ADEGI-k (negoziazio mahaira esertzen den hurrengoan) bere ohiko harrokeriak alde batera uztea, eta, noski, langileon ordezkarietako begirune gehiago izatea. Bestela badaki zein izango den langileon erantzuna: kaña, kaña, kaña! Izan ere, metalgintzako langileok ez dugu 1 Formula-ko kotxe baten beharrik ADEGI-ri duintasunaren karrera aise irabazteko. Horretarako, bizikleta batekin nahiko dugu-eta.

EUTSI GOGOR!!!

Gipuzkoako metaleko langileok grebaren alde egin dugun apostua eredugarria izan da. Maiatzak 28ko greba historikoa izan dela esan dezakegu, Gipuzkoako metalgintzako sektore osoa geldiarazi baitugu. ADEGI-k,

Gipuzkoako metaleko komiteko enpresa gehienek (50 langile baino gehiagoko enpresek) bat egin dute 4 eguneko greba deialdiarekin; eta PYME-tako (50 langile baino gutxiagoko enpresak) %85ak ere mobilizazioen alde egin du. Partehartze datu hauek historikoak direla aitortu beharra dago; metalgintzako langileok, zailtzarrik gabe, ADEGI-ri mahairatu digun erronkaren araberrako erantzuna eman diogu.

Kontutan izanik enpresaburuak hurrengo egunetan jo eta ke arituko direla iritzi publikoari grebaren inguruko datu intoxikatzaileak helarazi nahian, komenigarria da aipatzea, eskualdeka, metaleko greban partehartzen duten enpresa erreferenteen zerrenda.

noski (nahiz eta egunkarietan kontrakoa adierazi), badaki greba hau arrakastatsua izan dela, oso. Eta ondo egingo luke bere jarrerara aldatuz! Inolaz ere ez baitiogu gure Hitzarmena lapurtzen utziko. Zorionak guztioi!!!

GIPUZKOAKO METALA:

- ***DEBAGOIENA:** GARAY, ARCELOR, TESA, ELAY, T.T.T., POLMETASA, CANDY, TORUNSA, METAGRA...
- ***DEBA BEHEA:** AYRA CARDAN, CIE NORMA, WEC, CIE RECYDE, ALFA, RTS, METEC-MOTRIC...
- ***ORIA:** PAMACHTO, ECHESA, PEROT, DEMAN, AGUI, VOITH, SAPA...
- ***GOIERRI:** CAF BEASAIN, INDAR, BELLOTA, CIE LEGAZPI, ESTANDA, GKN LEGAZPI, JASO...
- ***UROLA:** TS FUNDICIONES, SIDENOR AZKOITIA, ITUR, GUASCOR, SAMMIC, BIELE, CORRUGADOS LASAO, KORTA...
- ***OARSO/DONOSTIA:** CAF IRUN, PALMERA, ABB NIESEN, SALVA, ZARDOYA OTIS, PLACISA, IKUSI...

!!!ZORIONAK BENE-BENETAN METALGINTZAKO LANGILE GUZTIOI!!! ADEGI-K GAUZA BAT OSO ARGI IZAN BEHAR DU: BORROKAN JARRAITUKO DUGU. INOLAZ ERE EZ BATIOGU GURE AURREKOEK, NAHIKOA SUFRITUZ, IRABAZITAKO LAN-ESKUBIDEAK LAPURTZEN UTZIKO. JO ETA KE IRABAZI ARTE!!!

¡HURRUPATZAILERIK EZ, ESKERRIK ASKO!

Maiatzak 28an, Gipuzkoako metaleko langile gehienok Hitzarmenaren aldeko greba deialdiarekin bat egiten genuen bitartean, Eduardo Zubiaurre, ADEGI-ko presidentek, komunikabideetara jo zuen, bi aldiz.

Lehendabizi, barregarri aritzeko, greba deialdiaren jarraipena "%35ean kokatu behar zela" esanez. Gezur galanta, jakina; ohi bezala, galtzaile txarra, gezurretan maixu.

Bigarrenik, komunikabideen aurrean, lan merkatuaren erreformaren aldeko bere errezeta distiratsuk azaltzeko. Dirudienez Zubiaurre jaunak ADEGI-ko presidente karguan ez du luzera joko; izatez, bere adierazpenei erreparatu, bere benetako helburua hurrupatzaile talde bateko buruzagi espirituala bilakatzea izan daiteke.



CCOO sindikatuko afiliatu gehienek, eta delegatu askok, zintzotasunez bat egin dute Metaleko Hitzarmenaren aldeko 4 eguneko greba deialdiarekin. Eta jarrera hori eskertzekoa da. Aldiz, tamalgarria da CCOO sindikatuko zuzendaritzaren jarrera. Izan ere, urte askotan batasun sindikalaren leloa alferrik erabili eta gero, orain, Hitzarmena bera jokoan dagoen, CCOO-ek alde bakarreko mobilizazio deialdia egin du, 4 eguneko grebari begira eskirolen estratagian kokatu behar den "mobilizazio" deialdia, gainera. CCOO-ek, benetan, Hitzarmenaren alde borrokatu nahi badu, gurekin batera borrokatzeko atek irekiak ditu.

